



## **KULTUR-ETXEAREN ERABILPENA**

COVID-19ak, Udal eraikuntzen erabilpena berrantolatu eta arautzea bultzatu digu.

Horrela, horien artean, Kultur-etxeko erabiltzaileen jarraipena egitea tokatzen zaigu.

Lehen pausoa, haurren eta gazteen guneetako erabiltzaileen zerrenda berriak egitea izango da, izan ere, lehengoak zaharkituak daude.

Horretarako, bi zerrenda osatu behar dira:

- 1- Haurren gurasoen zerrenda: Kultur-etxeko sarrerako giltza duten edo behar dutenenena. Guraso batzuk haurrak ez izan arren, giltzarekin jarraitzen dute, beraz, hauei Udaletxean giltza entregatzea eta benetan behar dutenak Udaletxean izena ematea eskatzen zaie.
- 2- Gazteen lokaleko zerrenda: Kultur-etxeko sarrerako eta gazte lokaleko giltza dutenenena. Gazte lokala erabiltzen ez dutenek giltza entregatu eta gaur egungo erabiltzaileek Udaletxean izena ematea eskatzen zaie.

Beraz, Arautegi bat ezarri eta funtzionamendu egoki bat izateko, Udaletxean izena eman edo giltza entregatzea eskatzen dizuegu.

Denon onurarako izango delakoan, agur bat.

Abaltzisketan, 2020ko urriaren 14an.

**Udalak**